

Ordizian, 2017ko otsailaren 6an, Udaletxe honetako batzar aretoan bildu zen **TOKIKO GOBERNU BATZORDEA**, ohiko deialdian, honakoak bertaratu zirelarik:

BERTARATUAK:

BATZORDEBURUA: José Miguel Santamaría Ezeiza

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Jose Ignacio Iturrioz Gotor
Igor Eguren Izagirre
Mila Sukia Galparsoro
Iñaki Dubreuil Churruca

EAJ/PNV
Ordiziako EH-Bildu
Ordizia Orain
PSE-EE (PSOE)

BERTARATU EZ DIREN ZINEGOTZIAK:

IDAZKARIA:

Ana Urkizu Kerejeta

EGUNEKO GAIEN ZERRENDA:

- 1.-2017ko urtarrilaren 23ko ohiko bilkurako akta onartzea.
- 2.- 6.000 €tik gorako fakturak
- 3.- Txostenak eta hainbat eskari.
 - 6.000 €tik beherako fakturak.
 - Taxi baimenaren eskualdaketa.
 - Garaje plazak emakida administratiboan esleitzeko eta eskualdatzeko, baldintza ekonomiko-administratiboen aldaketa (Lukisain).
 - 2017ko Aurrekontuen Aurreproiektuari ekarpenak.
 - Hotelaren proiektua.
- 4.- Galde-eskeak.

ORDUTEGIA

HASIERA ORDUA: 15:15

AMAIERA ORDUA: 16:50



Batzordeburu jaunak hasiera eman dio saioari, gai-zerrendako lehen puntuari helduta:

1.- 2017ko urtarrilaren 23ko batzordeko akta onartzea.

Proposamena

“Ohiko deialdian egin zen 2017ko urtarrilaren 23ko aktaren zirriborroa onartzea”.

Aho batez onartu da.



2.- 6000 €tik gorako fakturen zerrenda.

- 2, 4 eta 77 zenbakidun zerrenden berri eman da.

Kopurua guztira: 136.126,07-€

Aldeko irizpena jaso dute.



3.- Txostenak eta hainbat eskari.

- 6000 €tik beherako fakturak.

1, 3, 74, 75 eta 76 zenbakidun zerrenden berri eman da.

Kopurua guztira: 113.977,99-€

Fakturei oniritzia eman zaie.

.....

- Taxi baimenaren eskualdaketa.

Idazkariak, titularraren lanerako ezintasun iraunkorraren aitortzea dela eta, taxi baimen bat eskualdatzeko eskaerak dakarren arazoaren berri ematen du.

Eskualdaketak legezko baldintzak betetzen ditu; baina udal ordenantzetan jasotzen da Ordizian erroldatuta egon behar duela eta hori ez da betetzen.

Gobernu Batzordearen iritziz, eskualdaketa onartu ahal izateko, eskualdaketari publizitatea eman beharko litzaioke, bertako herritarrek taxi baimena eskuratzeko aukera izan dezaten. Herrian interesaturik ez balego bakarrik onartuko litzateke beste interesatuei baimena eskualdatzea, beti ere, eskatutako beste baldintza guztiak betetzen badituzte.

Udalak publizitatea emango dio eskualdaketari baina horrek dakartzan gastuak, interesatuaren kontu izango dira. Astebeteko epea emango da eskaerak aurkezteko.

.....

-Garaje plazak emakida administratiboan esleitzeko eta eskualdatzeko, baldintza ekonomiko-administratiboan aldaketa (Lukisain).

Hurrengo Tokiko Gobernu Batzordean aztertuko da gaia.

.....

-- 2017ko Aurrekontuen Aurreproiektuari ekarpenak.

Iturrioz Jn

Aurrekontua egokitzeko egin behar izan diren doikuntza eta konponketen berri eman du. Alderdi politikoei ekarpenik baduten galdetu die.

Eguren Jn

Astebete barru, beraien ekarpenak aurkeztuko dituztela erantzun dio, oraindik ez baitituzte landu.

Iturrioz Jn

Komenigarriena aste honetan bertan aurkeztea izango litzatekeela esan du.

Sukia And

Bere taldeak ez duela ekarpenik egingo esan du, pasadan urtean egindakoak ez baitziren kontuan hartu.

Iturrioz Jn

Baten batzuk adostuak izan zirela erakutsi dio.

.....

- Hotelaren proiektua.

Alkate Jn

Ondasuna eskualdatu eta ondoren hotela eraikitzearen inguruan, AOTk egindako txosten juridikoaren berri eman du.

AOTren ustetan, onuragarriena ondasuna besterentzea izango litzatekeela jakinarazi du.

Eguren Jn

Hala bada, berak ez du inongo eragozpenik.

.....

4.- Galde-eskeak.

- Dubreuil Jaunak AZSE-ko 48 etxebizitzaren azalera eskubidea esleituta dutenei, lurzorua salmentaren gaia berriro hartzeko eskatu du. Idazkariak dio, bere egunean, gaia jorratzen hasi eta txosten bat ere egin zuela uste duela.

Espedientea berreskuratu eta gaia berriro aztertuko da hurrengo Gobernu Batzordean.

- Alkate Jaunak hilabete honetako ohiko bilkura otsailaren 23an dela dio. Kontu-hartzailea (data hauek errespetatzea eskatu zuen postua hartu zuenean) ez da egongo eta Idazkaria, oporren ondoren, hilaren 20an hasiko da berriz lanean.

Hori guztia dela medio, ohiko bilkura martxoaren 6ko astean egitea proposatzen da eta ohiko egunetatik kanpo egin arren, ohiko izaera izango du.



Eta aztergai gehiagorik ez dagoela, alkate jaunak bilkura amaitutzat jo du. Behin-behineko idazkari naizen honek bilkuraren akta jaso, eta hori egiaztatzen dut.